

## **2021EKO OTSAILAREN 24KO OHIKO BILKURA**

**LEKUA:** Mutiloako Udaletxeko Batzar Aretoa

**DATA:** Bi Mila eta hogeita bateko otsailaren hogeita lauan.

**ALKATE-LEHENDAKARIA:** Iñaki Ugalde Alustiza.

### **BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:**

Asier Aguirre Murguiondo.

Jule Aranburu Mariezkurrena.

Erkuden Agirre Arruabarrena.

Aitor de Astobiza Uriarte.

Miren Arantza Oiarbide Perez.

Iñaki Zabalo Echezarreta.

**EZ BERTARATUTAKOAK:** Inor ez.

**IDAZKARIA:**

Martin Iparragirre Mujika.

**BATZARRA:** Ohikoa

**DEIALDIA:** Lehenengoa

**HASIERA ORDUA:** Arratsaldeko 19:00etan

**AMAIERA ORDUA:** Arratsaldeko 20:00etan.

Udal Osoko Bilkura hasi aurretik, idazkari-kontuhartzaileak gogorarazi du gai zerrendako puntuak dagozkien Informazio Batzordeetan diktaminatuta daudela.

### **GAI ZERRENDA:**

- **Aurreko bilkurako aktaren onarpena, hala badagokio: 2020ko abenduaren 9ko Ohiko Bilkurari dagokion akta.**

Aipaturiko akta aurkezten da Bilkura honetan onartzeko.  
Bozkatu ondoren, aho-batez onartuta geratu da.

- **Alkatetza ebazpenen berri ematea.**

Udal-kideei aurreko Bilkuratik hona igorritako alkatetza ebazpenen berri eman zaie:

- Alkatetzaren ebazpenak:
  - 2020ko 21 zenbakitik 24 zenbakira.
  - 2021eko 1 zenbakitik 7 zenbakira.

Udal-kideak jakinaren gainean geratzen dira (3.000,00 eurotik gorako fakturei dagokienez, informazio zehatza azken puntuan emango da)

- **2021eko ekitaldiko Udal Aurrekontu espedientea eta 2021eko 2 zenbakidun kreditu aldaketa espedienteari (kreditu gehikuntza modalitatean) behin behineko onarpena ematea:**

### **2021eko Aurrekontu Orokorra:**

Joan zen batzorde informatzailean, 2021. Ekitaldiko udal aurrekontuaren proposamenaren berri eman zitzaien udal-kideei.

Gastu eta sarrerei dagokienez, 2021. Ekitaldirako, 540.000,00 euroko aurrekontua aurreikusten da, eta honako hau da kapituluka laburpena:

#### **SARRERAK:**

<b>KAPITULUA</b>	<b>EUROK</b>
<b>1.- ZUZENKO ZERGAK</b>	<b>48.150,00</b>
<b>2.- ZEHARKAKO ZERGAK</b>	<b>6.000,00</b>
<b>3.- TASAK ETA BESTELAKO ZERGAK</b>	<b>30.140,00</b>
<b>4.- TRANSFERENTZIA ARRUNTAK</b>	<b>260.412,00</b>
<b>6.- ONDARE SARRERAK</b>	<b>7.600,00</b>
<b>7.- KAPITAL TRANSFERENTZIAK</b>	<b>187.698,00</b>
<b>DIRUSARRERAK GUZTIRA</b>	<b>540.000,00</b>

#### **GASTUAK:**

<b>KAPITULUA</b>	<b>EUROK</b>
<b>1.- PERTSONAL GASTUAK</b>	<b>149.811,09</b>
<b>2.,. ONDASUN ARRUNTAK ETA ZERBITZUAK</b>	<b>134.207,00</b>
<b>3.- FINANTZA GASTUAK</b>	<b>50,00</b>
<b>4.- TRANSFERENTZIA ARRUNTAK</b>	<b>62.810,95</b>
<b>6.- INBERTSIO ERREALAK</b>	<b>193.120,86</b>
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>540.000</b>

Bestalde aipatu da aurrekontu proiektuaren barne dagoela Udal langileen plantila organikoa eta lanpostu zerrenda, eta idazkari-kontuhartzaile lanpostuari dagokionez Mutiloa, Zerain, Zalduondo elkarte berria sortu denez, aldaketa hau sartu behar dela zerrenda horretan eta 2021etik aurrera dedikazioa Mutiloan %30ekoa izango dela.

Gaia aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udal-kideek aho-batez honako hau erabaki dute:

LEHENENGOA: Mutiloako udaleko 2021. Ekitaldiko aurrekontua behin-behineko izaeraz onartzea.

BIGARRENA: Aurrekontua jendaurrean jartzea 15 lanegunetan zehar, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den iragarki baten bidez, interesatuek alegazioak aurkeztu ditzaten.

Adierazitako jendaurreko epea amaitu ondoren inolako erreklamaziorik aurkeztu ez bada, Aurrekontu Orokorra behin betiko onartutzat joko da, horretarako beste erabakirik hartzeko beharrik gabe.

## **2021/02 KREDITU ALDAKETA ESPEDIENTEA KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN.**

2021/02 zenbakidun Aurrekontuaren Kreditu aldaketa espedientea ikusita eta Udal Idazkariak egindako txostena kontutan hartuta, hasierako onarpenerako aurkezten da. 2021/02 espedientea kreditu gehigarriak onartzeko da eta jendaurrean jarriko da 15 eguneko epean. Erreklamazio edo oharpenik jasotzen ez bada, beste akordiorik hartu gabe, behin betiko onartutzat emango da.

Kreditu Aldaketa espediente honen helburua da aurrekontuan krediturik gabe geratu diren inbertsioak kreditua izatea. Honako hau da kapituluka laburpena:

### **FINANTZAKETA:**

KAPITULUA	EUROK
2.0000.870.000.00.01-DIRUZAINZAREN GERAKINA	<b>67.000,00</b>

### **GASTU GEHIKUNTZAK:**

IZENDATUTAKOAK	EUROK
TROIKO ESKOILERA LANAK	22.000,00
EVE-BIODIBERTSITATEA-GEODIBERTSITATEA	24.000,00
ALDAPEROA GARBITU	10.000,00
JARDUERA FISIKOA	6.000,00
PARTEHARTZE PROZESUA	5.000,00
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>67.000,00</b>

Proposamen hau aho batez onartzen da.

**. Alkatearen Batzordeetako eginkizunak eta dituen ardurak betetzeko kontzeptuan ordainsaria ezartzeko proposamena onartzea.**

Ikusita alkateak Udalean egiten duen dedikazioaren inguruan ez daukala inongo ordainsaririk, eta gai hau arautu egin nahi dela.

Kontuan hartuta, gai honi buruz idazkari-kontuhartzaileak egin duen txostena.

Gaia aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udal-kideek aho-batez honako hau erabaki dute:

Lehenengoa.- Alkateari kideanitzeko organoetara joateagatik bertaratze eta dituen ardurak betetzeko ordainsaria onartzea baldintza hauetan:

1. Udal Osoko Bilkura, Informazio Batzordea eta gainerako kideanitzako organoetara joateagatik, bilera bakoitzeko asistentzi ordainsaria: 75,00 euro.
2. Kontzeptu horretan hileroko gehienezko ordainsaria: 382,00 euro 2021-02-01eko datako ondorioekin.

Bigarrena.- Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki taulan argitaratzea.

**. 2021 urterako EUDELeK proposatutako langileen soldata igoera onartzea.**

Ikusita EUDELeK 2021eko urtarrileko data duen 2021eko ordainsari-igoerei buruzko informazio zirkularra igorri duela.

Ikusita zirkular horretan, besteak beste, honako gomendio hau jasotzen dela:

**11/2020 Legearen 18 Bi artikulua edukiari dagokionez, EUDELek gomendatzen du sektore publikoko langileen ordainsariak handitzea 2021-01-01etik aurrerako ondorioekin, legez onartutako gehienekoa, hau da, 2020ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko %0,9, konparazioaren bi aldietarako, bai langile kopuruari, bai aintzinasunari dagokionez, homogeneotasuna mantenduz.”**

Gaia aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udal-kideek aho-batez honako hau erabaki dute:

Bakarra.- Aipaturiko EUDEL-en gomendioa jarraitzea, eta horren arabera Mutiloako Udaleko langileei ordainsariak %0,9 igotzea 2021-01-01etik aurrerako ondorioekin.

**.Goi Tentsio 400 KV Itsaso-Castejon linearen aurkako aurkeztutako mozioa onartzea, eta halaber Goi Tentsioko Linearik ez Plataformari atxikitzeko proposamena onartzea.**

Gaia aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udal-kideek aho-batez erabaki dute honako bi dokumentu hauek onartzea:

´ - GOI-TENTSIOKO LINEARIK EZ PLATAFORMARI ATXIKITZEKO AKORDIOA; honako hau da bere edukia:

Goi-tentsioko linearen lehen proiektua, Vitoria-Gasteiz/Castejón-Muruarte, 2007an aurkeztu zen, 2008ko apirilaren 27an (Lurraren Eguna), Goi Tentsioko Linearik Ez Plataforma sortu zen. Tartean ziren udalerriek parte hartu zuten, eta proiektua ezeztatzeko lan egin zuten, lortu arte. Hala jaso zuen 2010eko azaroaren 12ko BOEk, "ingurumenen duen eraginagatik eta gizarte-oposizioagatik".

2011n, Red Eléctrica de España S.A.k Itsaso/Deikazteluko bigarren proiektua aurkeztu zuen, irailaren 17an, Berriozarren. Ukitutako herrien ordezkarien batzarrak erabaki zuen Plataforma berriro martxan jartzea. 220 mozio onartu ziren udaletan eta kontzejuetan, eta horiei 174 alkateren eskaera gehitu zitzaien 2013an, proiektua ezeztatzeko eskatuz. Helburu hori berriro lortu zen, harik eta 2019an enpresa berak hirugarren proiektua aurkeztu zuen arte, funtsean aurrekoarekin bat datorren jarduketa eremua duena.

Bi aldiz erretiratu den proiektuaren aurkako ibilbide luze hori ezinezkoa izango zen Goi Tentsioko Linearik Ez Plataformaren bidez eragindako toki-erakundearen batasunik gabe, lan-

esparru ireki eta gardena baita, horizontaltasuna, zeharkakotasuna eta irizpidearen eta jardueraren independentzia ezaugarri dituena.

Mozioa onartu dugun Udaletan, 400 kV-ko Goi Tentsioko Linearen proiektuaren aurka gaude erabat. Horren bidez, Gipuzkoan Itxasoko azpiestazioa Castejón-Muruarte (Nafarroa) lerroarekin lotu nahi da. Udalerrien eginkizuna erabakigarria izan da orain arte, eta etorkizunean inplikatzeko ezinbestekoa da.

#### **Udal honek ERABAKI DU:**

Goi-tentsioko Linearik Ez Plataformari atxikitzea.

Erabaki honek **KONPROMISO** hauek dakartza berekin:

- Goi-tentsioko Linearik Ez Plataforman parte hartzea, ukitutako gainerako udalerriekin batera, iritzia emateko, eta jarraitu beharreko lan-ildoari buruzko eta elkarrekin egin beharreko jardueri buruzko erabakiak hartzeko. Horretarako, eginkizun horietaz arduratuko den pertsona bat izendatzea, Udalaren ordezkari gisa.
- Proiektua ezeztatzeko beharrezkotzat jotzen diren ekintza guztiak egitea, eta, horretarako, dagokigun herri-ordezkaritzak ematen dizkigun toki-administrazio baliabideak jartzea.
- Proiektuari buruzko informazioa jasotzea eta udalerriko bizilagunei helaraztea, herritarrek benetan parte har dezaten.

**-GOI-TENSIOKO LINEARI BURUZ AURKEZTEN DEN MOZIOA;** honako hau da bere edukia.

#### **Arrazoien azalpena**

Azterketa Eremuan dauden Udaletan, Estatuko Ingurumen idazkaritzaren ingurumen ebaluazio orokorraren Ordezkariordeztatik, Trantsizio Ekologikoaren Ministeriotik, jakinarazpen bat jaso zen 2019ko udaberrian, "Itsasoko 400KW azpiestazio elektrikoan, joan etorriko 400KWko Linea, zirkuitu bikoitza, Castejon Muruarte eta Itsaso-Orkoien (Nafarroa, Euskal Autonomi Erkidegoa) 1 eta 2 linea elektriko berrindartzea" proiektuari dagokion ingurumen inpaktuaren azterketak izango duen eragina eta sustatzailea Red Eléctrica de España S.A. da.

Proiektu hau zorretan zegoen eta aurreko biak ordezkatzera dator. Vitoria-Gasteiz/ Castejon-Muruartera zihoan lehen proiektua atzera bota zen, 2010eko azaroaren 12ko BOE 274an jasotzen den bezala, ingurumenari eragiten zizkion kalteagatik eta proiektu hark gizartean sortu zuen kontrako jarreragatik. Bigarren proiektua 2011ko abuztuan iritsi zen kaltetutako udaletara. 2011ko abenduaren 17an, Udal hautetsien Batzarrak Estatuko, Nafarroako eta Erkidegoko gobernuie eskatu zien, proiektua bertan behera uzteko, proiektuaren kaltea pairatuko luketen 220 udal eta kontzejuk onartutako mozioei oihartzun emanaz. 2013ko maiatzaren 15ean, Industria eta Energia Ministerioari, garraio elektriko azpiegitura berriak bertan behera uzteko eskatu zioten 174 alkatek eta uztailearen 19an, herritarrek, udalek eta kontzejuek sinatutako 14.000 alegazio aurkeztu ziren.

Horregatik, herritarren oposizioa sortu eta aurreko bi proiektuak bertan behera uztea ekarri zuten arrazoi berdinak, intentsitate berdinarekin edo handiagoarekin mantentzen dira, gaur egungoa kontsultara bideratzen ari den honetan. Proiektu honek lehenengo aldiz jasotzen du proiektua justifikatzeko arrazoi moduan, "Frantziara esportatzeko programa altuko agertokia".

Proiektu honek, pasatzen den lurraldeen hornikuntzan inolako justifikaziorik ez duenez eta Nafarroako eta Gipuzkoako lurralde zati bati oso modu negatiboan eragingo dio, paisaian, ingurumenean eta herritarren osasunean. Aldi berean ez da bateragarria lurralde

antolamenduarekin eta kaltetutako herrien etorkizuneko garapen aurreikuspenekin eta gainera ehun produktiboan, turismoan eta lehen sektorean izugarritzko kaltea ekarriko du **Udal honek ONARTZEN du:**

1º.-Gipuzkoako Itsasoko azpi-estazioa eta Nafarroako Castejon-Muruarte linearekin, Tafalla parean, lotu nahi dituen 400 KV Goi Tentsioko Linearen proiektuari erabateko desadostasuna azaltzea, gizartearen interes orokorrerako inolako justifikaziorik ez izateagatik.

2º.- Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Gipuzkoako Batzar Nagusiei, Euskal Autonomiako Erkidegoko Gobernuari eta Legebiltzarrari eta Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioari, proiektuari ezezkoa eman diezaioten eskatzea, paisaian, ekonomian eta ingurumenean izango dituen kalteengatik jasangaitza delako eta potentzialki kaltetutako herrietako gune gakoetan izango duen afekzioa kontuan hartuta

3º-Akordio hau Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioari, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioari eta Gipuzkoa Foru Aldundiari, Gipuzkoako Batzar Nagusiarri eta Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernuari eta Legebiltzarrari bidaltzeaz gain komunikabideen bitartez publiko egitea.

- **3.000 eurotik goragoko fakturen onarpena.**

Honako hau da aurkeztu den zerrenda, argitu da presa kontua dela eta, batzuk Alkatetzaren Ebazpenaren bitartez bideratu ondoren dagoeneko ordainduta daudela:

04/2021 ALKATETZAREN EBAZPENAREN BITARTEZ ONARTUTA:	
GOITU ERAIKUNTZAK S.L.	172.112,24
PROYECTOS SOSTENIBLES ARKIMO	6.050,00
MAIDER ROMO ARIZMENDI	3.625,20
GABIRI S.L.	5.777,75
05/2021 ALKATETZAREN EBAZPENAREN BITARTEZ ONARTUTA:	
SEGURAKO UDALA	6.232,34
SEGURAKO UDALA	4.596,95
ZUZENEAN UDAL OSOKO BILKURARA AURKEZTEN DIRENAK:	
SEGURAKO NOTARITZA-FUNTSEN PROBISIOA	3.300,00
GOIMEN-2021EKO KUOTA	3.167,50

Galde-Erregu puntura pasatu aurretik, Alkate jaunak adierazi du geroz eta herritar gehiago etortzen direla Udaletxera BakQ txartela eskatzera, eta txartel hori udaletxean egin ahal izateko dagokion erabakia hartu beharra dagoela, eta gaiak duen presa ikusita eskatzen du erabaki hau Udal Osoko Bilkura honetan hartzea.

Gaia aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udal-kideek aho batez, onartu dute puntu hau gai zerrendan sartzea, eta udaletxean BakQ txartelak izapidetzeko derrigorrez hartu beharreko erabakia onartzea. Honako hau da hitzez-hitz onartzen den erabakia:

Administrazio elektronikoaren oinarrizko irtenbideak elkarri emateko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarekin sinatutako lankidetzahitzarmen hauekiko atxikimendua eskatzea. Hain zuzen ere.

-Estatuko Administrazio Orokorrarekin 2017ko martxoaren 24an sinatutako lankidetzahitzarmenarekiko, lehenengo klausularen 2. Atalean ezarritakoari jarraituz. Hitzarmen hori 2017ko apirilaren 21eko Euskal Herriko Agintaritzan Aldizkarian, 76 zenbakikoan, argitaratuta dago.

-Gipuzkoako Foru Aldundiarekin 2018ko abenduaren 5ean sinatutako lankidetzahitzarmenarekiko, lehenengo klausularen 2. Atalean ere ezarritakoari jarraituz: Hitzarmen hori 2018ko abenduaren 21eko Eusko Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, 245 zenbakikoan, argitaratuta dago.

-Mutiloako Udalak hitzarmena ezagutu eta erreparorik gabe onartzen du harekiko atxikimenduari dagozkion alderdi guztietan; horrez gain, konpromisoa hartzen du hitzarmenean jasotako betebeharrak betetzeko, alderdi sinatzaileek ematen dituzten administrazio elektronikoaren oinarrizko irtenbide teknologikoak (bigarren klausulan zerrendatu dira) edo etorkizunean eguneratu edo aldatzen direnak eskuratzeari eta erabiltzeari dagokionez. Horrez gain, bere eskumenen arloan, bere gain hartzen ditu hitzarmenean Gipuzkoako Foru Administrazioarako ezarritako betebeharrak.

#### • **GALDE-ERREGUAK**

Ez daude.

Eztabaidatzeko gai gehiago ez dagoenez, Bilkura amaitutzat ematen da arratsaldeko 20:00ak direnean eta horren fede, nik idazkariak ematen dut.



Nik, Martin Iparragirre Mujikak, Gipuzkoa Lurralde Historikoko Mutiloako Udaleko idazkari-kontuhartzaileak,

**ZIURTATZEN DUT:**

Udal Osoko Bilkurak, 2020ko abenduaren 9an eginiko Ohiko batzarrean, besteak beste, letraz letrazko erabaki hau onartu zuela:

---

Mutiloa, 2020ko abenduaren 9a

O.E.  
ALKATEA